

Balio proposamena:

Gure produktua, merkatuko horrelako produktu bakarra izateaz gain, nork bere garapeana ikusi dezake. Bukaerako helburu bat lortzeko, emandako pausu guztiak agertuko dira. Ez hori bakarrik. Azken helburua lortzeko animoak bidaliko dizkigu eta hilabetero nola goazen abisatuko digu.

Horrela, norberaren helburuak lortuko direla bermatuko dugu.

Aplikazio berri honek gure garapen pertsonalean lagunduko digu.

Bestalde, gizartearentzako onuragarriak diren lanetan eman dezakegu izena. Eta laguntza behar duen norbaitek zerbitzu horretan klik egin eta etxean izan dezake beste pertsona batek eskeini duen laguntza.

Esaterako, agure batek super merkatura joan behar badu, laguntzea, zerbait konpondu behar balitz, zerbait konpontzea, klase partikularrak emateko, taxiak, emakume bat etxera laguntzeko zerbitzua...

Enpresaren politikari dagokionez, edonork txerta dezake bere zerbitzua, baina, zerbitzu hori eskeini aurretik guztiz bermatuta egongo da eskeiniko den zerbitzua behar bezain ona izango dela.

Gainera enpresak lege espezifiko batzuk izango ditu eskeini eta eskatuko duten pertsonen pribatutasuna babesteko.

Enpresa barruko langileok, eskatzailea eta eskaintzailearen arteko bitartekari lanak egingo ditugu, eta horrela, edozein motako arazoak ekidin eta zerbitzu bikainak eskainiko ditugu.



